



BELDUR BARIK

Ereinez, eraginez eraldaketa,
eredu eredugarrien iraultza
izan da guztion hauspo eta noranzko,
zangoak bihotzari jarraitzen dio.

Eroak, zentzudunak, ausartak gara
koldarrak, lotsatiak, zuhur, baldarrak.
-Izan behar luke bertuteak ardatz! -
ohiukatzen du ozen berdintasunak.

Barrurantz begira, kanpoko ere ikusten da.
Barnekoa kanporatuz
ikusgarriak gara.

ASKE GARA MAITE,
ESKUTIK, BELDURIK BARIK, BIZIRIK,
ERNE BEZAIN FIRME
AMESLARI, ITSASARGI.

Zenbat irain, zenbat debeku, mehatsu,
bada egoterik libre eta esklabu.
Mozorro festarako hamaika motibu,
ezkutuan zaude zu ere gatibu.

Zaurien oihartzuna uretan igeri,
olatu berrien bultzada gidari.
Arroken gaintetik entzun diogu adi
erantzunkidetasunaren deiari.

*Konposizioa eta ekoizpena: Garazi Zabaleta Mendizabal
Abeslariak: Afrika Bibang, Ithaka taldeko Leire, Biren taldeko Ane
Grabaketak, nahasketak eta masterizazioa: Víctor Sánchez Morales ***Elkar Estudioa*